

BERGARAKO 2030 AGENDAREN PLAN ESTRATEGIKO JASANGARRIA ADOSTEKO PROZESUA

**LURRALDE MAHAIAREN 2. BILERA**

Bertaratutakoak:

- Agurtzane Diaz (Deba Garaia Landa Garapen elkarte)
- Leticia Alvarez (Udaleko Hirigintzako teknikari burua)
- Dorleta Eguiara (Obra eta zerbitzuen burua)
- Juan Luis Gonzalez (Alkateordea, Lurraldea arloko lehendakaria)
- Gorka Artola (Alkatea, Lurralde arloko batzordekidea)
- Nerea Egia (Udaleko Ingurumen-teknikaria)
- Juan Inazio Galdos (Hirigintzako A.O.T.)
- Ander Okiñena (Udaltzaingoko ofizial ondoko udaltzainburua)
- Leire Garmendia (Izadi 21 aholkularitza-taldea)
- Aitor Gonzalez (Izadi 21 aholkularitza-taldea)

Bileraren hasiera-ordua: 14:30ak.

Udalak kontratatutako aholkularitza-enpresako kideek, akta honekin batera doan aurkezpenaz baliatuz, eta “Bergara 2030 egin herrixa” prozesuaren baitan mahai teknikoaren lehen bileran lurralde arloei dagokionean 2030 urtera begira identifikatu ziren erronka nagusien hausnarketatik abiatuz, Plan Estrategiko Jasangarriaren formulazio estrategikoa aurkeztu dute.

Lehenik, apirilean izandako lehen herri-batzarrean herritarrekin eginiko lanketatik aholkularitza-enpresako kideek idatzi duten 2030erako ikuspegia azaldu da. Herritarrei 2030 urtean Bergarak izango dituen ezaugarri nagusiak zehazteko eskatu zitzaizkien eta gehien nabarmendu zituzten hitzekin osatu da 2030erako ikuspegia:

**“Bergara inklusiboa izango da 2030ean, adin, jatorri eta egoera ezberdinean aurkitzen diren herritarrei enpatiaz erantzutzea diena. Ekonomia eredu jasangarriaren bidean, herritar orori lan duina eskaintzen dion eta aldi berean natura zaintzen duen komunitatea izango gara, osasuna lehentasun izanik herri goxo batean bihurtu dena. Gizarte euskalduna izango da gurea, kultura-, kirola- eta hezkuntza- eskaintza zabala dituen. Ikuspegi parte-hartzaile eta feministatik erronka berriei aurre egiten dien auzo-herria izango gara.”**

Formulazio estrategikoa definitzen hasteko mahai teknikoaren lehen bileran eginiko lanketatik jasotako lurraldeari lotutako helburu estrategiko eta helburu operatiboen (jardueraprogramen) proposamena aurkeztu da.

Ondoren, Lurralde-mahaiaren 2. saioko helburu nagusiak aipatu dira:

- 1) Aurkeztutako helburu estrategiko eta operatiboen gainean ekarpenak jasotzea.

2) Helburuetatik ekintzetara jaitea, helburu bakoitza aurrera eramateko ekintzen hasierako zerrenda osatzea. Ondorengoak ekintza moduan jasotzea proposatu da: indarrean dauden udaleko gaikako ekintza-planak (mugikortasun plana, etab.), Legegintzaldiko planeko ekintza esanguratsuak eta diagnostikoaren lehentasunezko jarduera-arloak.

3) Hurrengo bileren inguruko aurreikuspenak azaltzea

Lehen bi helburuak erdiesteko asmoz, azaldu den helburu estrategikoen gainean ekarpenak egiteko dinamika zehatz bat erabili da eta honakoak dira lortutako emaitzak:

**HELBURU ESTRATEGIKOA: Hiri-eredu jasangarria sortzea, herritarren ongizateari begira dagoena eta klima-aldaketa arintzeaz gain, horretara egokitzen dena.**

Helburuaren izenburuan garrantzitsutzat jo da herritarrentzako hiria izango dela aintzat hartzea eta beraz, hiri-eredu jasangarriaz gainera inklusiboa izatea jasoko luke helburu honek: **“Hiri-eredu inklusibo eta jasangarria sortzea, herritarren ongizateari begira dagoena eta klima-aldaketa arintzeaz gain, horretara egokitzen dena”**

**HELBURU OPERATIBOAK (JARDUERA PROGRAMA):** Helburu bakoitzerako jaso diren ekintza posibleak hauek dira:

- **Hirigintza orekatu, erresiliente eta bioklimatiko baterako eraldaketa.**
  - Alde zaharra birgaitzeko plana garatzea.
  - Industria-plangintza berri bat antolatzea irizpide jasangarriak aplikatuz.
  - Herritarrak kontzientziatzea / sentsibilizatzea udal-altzariak, eraikinak, espaloiak, etab. zaintzeko.
  - Eremu publikoa birdiseinatzea, oinezkoentzako eta bizikletentzako eremuak irabaziz, Covid19a bezalako egoerei aurre egiteko, etab.
  - Haurrentzako aisia-gune naturalak (ez txiki-parkeak) herrian bertan sortu edo eraikitzea.
  - Etxebizitza hutsak gazteek eskuratu ditzaten diru-laguntzak bideratzea (batez ere Alde Zaharrari begira).
  - Hutsik dauden merkataritzarako lokalak erabil daitezen neurriak ezarri.
  - HAPO berria 2023an diseinatzen hasteko urratsak ematea.
  - Eremu publikoak erabilgarri izan daitezen, egokitzapenak burutu, segurtasuna, herritar anitzentzako gaitasuna, klima-aldaketari egokitzea, ... bermatuz.
  - Jarduerak burutzeko inbertsio-plana garatu.
  - Landa auzoek dituzten oinarrizko azpiegitura eta zerbitzu beharrak (ur hornidura, bideak, saneamendua, etab.) inbentariatu eta faseka garatzeko inbertsio-plangintza garatzea.

- **Hiri-mugikortasun jasangarriaren garapena bultzatu.**
  - Ordaindu beharreko TAO zerbitzua abian jartzea.
  - Ibilgailuak erdigunetik aldentzea eta astunak igarotzeko debekua ezartzea.
  - Herri barruan oinezkoen joan-etorriak sustatzeko neurriak ezartzea.
  - Herriko eta herri-arte oinezkoentzako, patineteentzako, bizikletentzako bide seguruak diseinatu eta garatu (industrialdetara joan-etorriak, ...).
  - Bizikleta partekatzeko sistemak ezartzea.
  - Industria-guneetara sartu eta irteten den trafikoa murrizteko, autobusa ipintzea edo autoa partekatzeko aukerak aztertzea.
  - Udal biltegiak zentralizatzea kotxe bidezko udal-langileen mugimenduak ekiditeko.
  - Osasun zentroa lekualdatzea auto pribatua erabiltzeko beharra ekidinez.
  - Oinezkoak eta bizikleta zaleak ardatz izango dituen mugikortasun eredia bultzatu, eremu publikoa haiei itzuliz.
  - Mugikortasun inklusiboa bultzatu, haurren (Oinezbusa), adinekoen, emakumeen eta bestelako herritarren beharrak asetzeko.
  - GI-627 eta Ertzainaren arteko zubiari irtenbidea eman.
  - San Joango industrietara doan errepidea hobetu (Elgetarako noranzkoan dagoena)
  
- **Berdeguneen eta natura-ondarearen kudeaketa berria sustatu, lehen sektorearen garapenari loturik.**
  - Basogintza eta natura-ondarearen erabilera jasangarria ahalbidetuko duen plan berezi baten osaketa.
  - Udaletik ingurumen eta biodibertsitate balio handienak dituzten lurren erosketa-programa martxan jarri.
  - Herritarrak natura-ondarearen zaintzan inplikatzeko neurriak ezarri, lur-zaintza ereduak sustatuz.
  - Herriko berdeguneak zabaldu.
  - Lehen sektorea indartu.
  - Paisaiaren artisauek zaindu eta laguntza eman.
  - Ibaia eta errekek zaindu, balioan jarriz.
  
- **Hiriaren deskarbonizazioa garatu.**
  - Udal-lokalak zentralizatu, herritarren joan-etorriak murriztu eta energia aurrezteko.

- Auto-hornidurarako energia-komunitateak sustatu eta energia berriztagarrien instalazioetarako diru-laguntzak ezarri.
  - *District heating* pilotua eta Boni Laskuraingo proiektuaren bideragarritasuna aztertzea.
  - Energia eraginkortasunean eredarri izango den 0 isurpena duen eraikina sortzea udal jabetzako eraikin batean
  - Udal-azpiegituren (argiztapen-publikoa, eraikinak, udal-ibilgailua, etab.) energia eraginkortasuna hobetzea.
  - Udaletxe eta udalerrri mailako energia-plangintza osatzea, klima-aldaketa barne hartzen duena.
  - Udalaren energia-kudeaketa aurrerakoia izatea, kontsumoen kontrolerako sistema integrala barneratuz.
  - Herri barruko zein kanpoko autobus zerbitzu-sarea osatzea.
- **Baliabideen kudeaketa jasagarria eta ekonomia zirkularra sustatzeko programa.**
- Elikagai zarrastelkeria ekiditeko neurriak aztertu (adibidez, ikastetxeetako jangelen soberakinen banaketa-zirkuitu laburrak osatuz).
  - Auzokonpostaren eredia birdiseinatu.
  - Debagoieneko Mankomunitatearekin bestelako hondakin-zatikien birziklapena aztertu (adb: kafe kapsulak).

Orokorrean proposatzen diren ekintzek behin betiko planaren egituran izango duten kokapena ezingo da oraindik guztiz zehaztu.

Dinamikarekin amaitu ostean, mahai teknikoaren hurrengo bileraren helburuak eta tartean antolatuko diren herritarren mahai sektorialetan landuko dena azaldu dute aholkulariek.

Bestalde, gaurko bilerara etortzeko aukerarik izan ez duten eragileei eta baita gaurko saiora bertaratu direnei ere, ekarpenak egiteko aste beteko epea ematea adostu da.

Honenbestez, bilera 16:00etan amaitu da.